

***Jaso logela! Itzali telebista! Egin eskolako lanak! Txukun jan! Zein da lagun hori?  
Gosaldu eta jantzi azkar eskolara berandu iritsiko gera eta! Niri ez hitz egin tonu  
horretan!***

Sarritan, gurasook gauza bera 100 aldiz esaten dugu, tonu guztietan eta, batzutan, pasa egiten gara. Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu debekatzeko orduan, exijitzeko orduan... “Ez” esatea kosta egiten zaigu edota gehiegitan esaten dugu.

Zailtasun asko ditugu autoritarismoa, xantaia eta penaren arteko oreka edo erdiko neurria aurkitzen. Eta, gure seme-alaba eta gure artean gaizki ulertuak sortzen dira...

Igeri egiten, gidatzen, sukaldatzen ikastea normaltzat hartzen badugu... ***Gure autoritatea mantendu, autoritarioa izan gabe, gure seme-alabekin komunikatzen, IKASI DAITEKE!***

***Nola hitz egin gure seme-alabei entzun diezaguten...Nola entzun hitz egin dezaten...***  
ariketa praktikoaren bidez, *Guraso Eskolan* ondorengo galderei erantzuteko modua aurkituko duzue:

- **Gure seme-alabak guri gustatzen ez zaigun zerbait egiten edo esaten duenean:**  
Nola esan benetan entzuteko? Zein muga jarri? Zer da autoritatea?
- **Gure seme-alabak arazo bat duenean:** Nola lagundu? Zergatik eta nola entzun? Nola lagundu modu progresiboan bere arazoak berak konpondu ditzan eta autonomoagoa izan dadin?
- **Bere jokabidea onartzen ez dugunean eta gurekin ez duenean ezer jakin nahi:**  
Nola konpondu arazoa inork sufritu gabe? Nola egin elkar errespetatzeko?
- **Gure seme-alabak beraien artean borrokatzen/haserretzen direnean:** Esku hartu behar da edo ez? Nola egin bitartekari lana, ulertzen lagundu eta pixkanaka beraiek beraien arazoak konpontzeko gai izateko ?
- **Nola lagundu gure seme-alabei pixkanaka-pixkanaka autonomia eta arrakastaren bidea aurkitzen?**